

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

URNIETAKO UDALA

*Iragarkia*

Urnietako Udalak 2020ko azaroaren 4an ez-ohiko osoko bilkuran besteak beste honako akordio hau hartu zuen:

*Lehenengoa.* Udalbatzaren 2019ko uztailaren 30eko erabaki bidez Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetutako eskumena aldatzea. Eskuordetze horrek eduki hau izango du:

Kontratazio publikoa:

Erabiltzea, kontratuei buruzko legeriaren arabera Udalbatzaren eskuduntzakoak diren kontratuekiko, legeri horrek kontratazio organoari esleitzen dizkion eginkizun guztiak, kontratuen luzapenen onarpena barne, betiere Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 47.2 artikuluari kalterik egin gabe.

Eskuordetze honetatik salbuesten dira kontratazio espedienteak onartzea eta espediente onartzeari buruzko gastua baimentzeko ahalmena.

*Bigarrena.* Erabaki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

*Hirugarrena.* Erabaki honek eragina izango du erabakia hartu eta hurrengo egunetik aurrera.

Ebazpen honen aurka berraztertze errekursoa jarri ahal izango da hilabeteko epean beraz Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita, edo Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa, Administrazioarekiko Auziak arautzen dituen 1998ko uztailaren 13ko Legeak ezartzen duen moduan eta epean.

Honen berri ematen da jakinean egon zaitezten eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

Urnietako Udala, 2020ko azaroaren 6a.—Jorge Segurado Iriando, alkatea. (5983)

AYUNTAMIENTO DE URNIETA

*Anuncio*

El Pleno extraordinario del Ayuntamiento de Urnieta celebrado el 4 de noviembre de 2020, tomó entre otros, el siguiente acuerdo:

*Primero.* Modificar la delegación de competencias en la Junta de Gobierno Local realizada mediante acuerdo de Pleno de 30 de julio de 2019, quedando la misma con el siguiente contenido:

Contratación pública:

Ejercer, respecto de los contratos de competencia del pleno según la legislación en materia de contratos todas las facultades que dicha legislación atribuye al órgano de contratación, incluida la aprobación de las prórrogas contractuales, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 47.2 de la Ley reguladora de las Bases del Régimen Local.

Se exceptúan de esta delegación la aprobación de los expedientes de contratación y la autorización del gasto relativa a dicha aprobación.

*Segundo.* Publicar este acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

*Tercero.* El presente acuerdo surtirá efectos desde el día siguiente al de su adopción.

Contra la citada Resolución se podrá interponer recurso de reposición en el plazo de un mes desde el día siguiente a su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa o directamente interponer recurso contencioso-administrativo ante la jurisdicción contencioso-administrativa en la forma y plazos previstos en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Lo que se publica para su conocimiento y efectos oportunos.

Urnietako Udala, 2020ko azaroaren 6a.—El alcalde, Jorge Segurado Iriando. (5983)